



1- Balorezko proposamena:

Gaur egun, langile askok ez dakite zer egin beraien umeekin lanera joaten direnean. Horretarako **Babysitter S.A.** enpresa sortu dugu, langileen umetaz arduratzen dena, 0 eta 6 urte artean dauzkaten umeak zaintzeko prest gaude. Eskaintzen dugun haurtzaindegi zerbitzuaz gain, gure bezeroei aukera ematen diegu errefortzu klaseak hautatzeko baita ere; hala ere, hau 6 eta 12 urte arteko umeentzat da.

Enpresa hau, Gasteizko enpresa bakarra da, hau da, ez dago beste enpresarik lan bera egiten duena. Enpresetako langileen umetaz arduratzea da enpresa honen helburua. Beste enpresa batzuek azpikontratatu behar digute gure zerbitzuak eskuratzeko, eta enpresa horren langileak lanera joaten direnean, haien umeak gure haur zaintzaileen esku utzi ditzazkete gure instalazioetan.

Gure langile guztiak, oinarrizko ikasketak izateaz gain, haurren zainketarekin lotutako lanbide-heziketa edo unibertsitateko karrerak dituzte betetak. Errefortzu klaseetan, irakasle guztiak dituzte jakintza ikasgai bakoitzean eta era berean, elkarrizketa luzeak eta azterketak oso zorrotzak gainditu dituzte lanpostu hau lortzeko.

Prezio kualitatiboan oinarrizko ginategi, bezeroen ikuspuntuari eta diru-sarrerei garrantzia emanaz. Hainbat faktoreen arabera, prezioa moldatuko genuke deskontuak eginez edo eskaintza bereziak; adibidez, ume bat baino gehiago izateagatik %20ko deskontua egingo genioke familia honi.



Enpresek eskaintzen dizkiguten instalazioetara egonkortuko gara, gure lan gunea sortzeko. Instalazioak moldatuko ditugu, lan eremu egokia sortzeko bai umeak eta bai guk gustura egoteko eta gehienez 22 ume zaintzeko gela bakoitzean.

Errefortzu klaseei begira, 2 gela izango genituzke: bat Salburua auzoan eta beste bat Zabalzana auzoan; izan ere, auzo hauek dira Gasteizen ume gehien bizi direnak.

Klase hauek 6 urtetik 12 urtera dira, hau da, lehen hezkuntza egiten ari direnentzat. Uste dugu, adin honetan laguntza asko behar dute beraien hezkuntza garatzeko eta modu honetan, beraien ikasketetan ikaslagun izan gaitzke.

Salburua:



Zabalzana:

